

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lorenzo Laskurain Gabilondo

*Bergara,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



1931ko San Lorentzo egunean eta San Lorentzo auzoan jaio zen Lorentzo. Aita Bergarakoa bertakoa zuen eta ama, berriz, antzuolarra. Josu Oregiren ehun-lantegian lan egindakoa da. Padroian ere lan egin izan du eta asko ezagutzen ditu Bergara inguruko leku-izenak. Artxiboko argazki bilduma dokumentatzen ere ibili izan da. Txanpon eta zigilu bildumagile da Lorentzo bera, eta hainbat bilduma egiteko zaletasunaz hitz egiten du. Bergarako bi parrokiez, eta San Martin Parroki-batzordeko lanez azalpenak ematen ditu. Bergarako beheko kondea eta goiko kondea, Basalgo auzoko Goimendi auzuneko pertsonaiak, herriko txikiteoa eta Bergarako hainbat kontu ditu mintzagai.

Zintak

BER-216

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-11-17
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Badihardugu Euskara Elkarte
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

BER-309

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-01-14
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

BER-385

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2024-12-03
- **Iraupena:** 16 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. San Lorentzo auzoan azkenengo hamarkadetan izandako aldaketak

- **Erref:** BER-216/001
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

1931n jaiotakoa, San Lorentzo auzoan eta San Lorentzo egunean. Auzoa asko aldatu da. Baserri asko desagertu egin dira, industria gunea egiteko lur-sailak behar ziren eta asko bota egin ziren. Baserri izenak. "Maduria" zen ingurua, lur-sail lauak. Bertan ezarri diren industria batzuen izenak.

Transkripzioa

Zeuan ermenteritza bat, perratokixa... Ba horretxek.

Emaztea: Eta Bolubarri.

-Basarri asko, ez?

-Bolubarri oinddio han dao. Bueno, han dao... Oñ berriztuta, baiña haura aparte geratzen zan, errekan bestaldetik zeuan eta. Zubikua botata, horrek danak botata dare. Gero Zapatarikua, tabernia, botata dago; Gillingua basarrixa botata, gero bizitzan etxe bat zeuan "almacén de piensos" eta gero Joseinazionekua esaten jakona, Jose Inazio Gallastegiña, bost, lau pisu zeren, jente asko bizi zan, "derecha-izquierda" ta. Horrek danak fuera.

-Basarri asko, ez, inguru hartan?

-Gero Santalaitz-txikikua be bai, haura be bota; gero beste etxe berri bat zeuan, etxia "de viviendas". Gero Santalaitz-aundi be bai; Santalaitz-txiki, Santalaitz-aundi, horrek botata. Gero Bar Toki Alai, hori be botata. Horrek danak industriak arrasa-ittu. Gero besteik eztao hor, ez zeuan.

-Basarri asko eta imajinatzen dot inguruan danak soruak eta.

-Baiña oso sakabanauta, e! Sakabanauta. Auzo daniel, bai. Maduria zan, terreno onak zien, lisuak, eta hor ein zan ba industria asko. Cometsa, General Mecánica, Sussen Vasca. Irin-fabrikia be bazeuan, oinddio be paretak badare. Oinddio edifizua hor dago, baiña haura be borrau zan hortik. Gero...

Emaztea: Tintorerixia, zu jaiotakua, tintorerixia.

-Baiña haura... Edifiziuak han dare oin be. Ni jaio nintzan etxian han dare zerak.

2. Ferratzaile eta errementariak

- **Erref:** BER-216/002
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Ferratzaile eta errementariak, elkarren ondoan. Tiburcio Mujika eta Eusebio Larrañaga.

Transkripzioa

-Esan dozu perratokixa bazeuala. Eta ermentarixa?
-Errementarixa han onduan, eta perratokixa ba holaxe, alkarren onduan. Bai. Tiburcio Mujika errementarixa eta Eusebio Larrañaga perratzaillia. Horrek bixak. Tiburcio Mujika, harek eitten zittuan karruendako, burdixendako erruberak-eta, burdiñak sartu. Arotzak eitten zittuan eta gero burdiñak ipintzen zotsen han, llantak. Eta laguntzen zotsan perratzailliak lanik ez zeukanian, harek bigarren laguna bihar izeten zaban Tiburzio errementarixak, eta laguntzen zotsan horrek, perratzailliak. Ondo arreglatzen zien alkarrekin. Baiña anekdota bat Tiburzion: seirak puntuan jantzita egoten zan urtetzeko, seiretan. Pentsaizu, bera nausixa zan, baiña seirak joteko zaiñ, txaketia-ta jantzita, da! atian holaxe. Dan!, "han seirak" eta atia itxi eta Zapatarikora, tabernara. Tiburzion zan... Haura ikusi tta seirak die, esaten giñuan. (eztago) erlojo biharrik. Harek zaintzen zaban ordua.

3. Errementaria eta ferratzailea San Lorentzo auzoan

- **Erref:** BER-216/003
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Auzoko baserri gehienak, kale-baserriak ziren eta abere gutxi izaten zituzten. Errementaria eta ferratzailea auzoan bertan zituzten. Errementariaren lanaren azalpena. Arotzeria bat ere bazegoen ondoan.

Transkripzioa

Honek kale-basarririk zien gehixenak, basarri gutxi, fabrika lana, eta ganau pare bat edo bi edo. Hola.
-Orduan basarritik bizimodua ez eben ataratzen?
-Ez, ez. Amilla-barrenguan be ba hantxe; ezta harek be. Lengo gizona karreterua zan. Bi zaldikin karreterixan eitten zaban. Gero Gillinguan-eta ba bazeuken sailla-ta, baiña seme danak fabriketan handik kanpora eitten zeber lana. Eta Zapatarikuan tabernia, eta dendia be bazeuken.
-Hemen perratokixa-ta errementarixak eta, bertan eitten zeber lan?
-Bai. Hantxe bizi zien, harekin bizi zien, bai. Hori zan bere "medio de vida".
-Zeuek ikusi eitten zenduen eurak lana zela eitten zeber?
-Bai, makiña bat ordu eitten giñuan guk han begira. Bueno!
-Errementarixak zer eukitzen zaban, sutegixa edo?
-Bai, suteixa, ta iunkia-eta; dana forjau eitten zaban harek, harek soldaduraik eta ez zeukan harek. Horrek llantak-eta, zeretik, burdiñian zera ahartu eta ra!, doblau, eta gero pegau, berotu eta maillukiakin jota... Ez zeuan soldaduraik orduan. Horrek ez zeukan soldaduraik. Eukiko zeber fabriketan-eta baiña, horrek ez zeukan.

-Lan asko izaten zan orduan burdixan erruberen uhalak ipintzen?
 -Bai. Erruberia eitten zan, ezta, eta hau egurrezkua eiñ, eta gero llanta bat bueltau eta haura ipintzen zan honen bueltan. Baiña sartzen zotsen, berotu burdiñia eta egurran zerian sartu. Presiñuan sartu egurrian, eta keiak etarata, ura bota-ta eitten zotsen ezteixen erre egurra, eta gero sartzen zotsen holako sujetatzeko batzuk, eta harekin gero. Hori gogor eitten zeben. Ez pentsau harek urtetzen zebanik segiduan! Zelako burdixak, harri artian ibiltzen zien burdi horrek eta. Aguantatzen zeben, bueno!
 -Eta gero tresnak eta eitten zittuen, baserriko tresnak edo?
 -Tresnak... zorroztu gauza asko basarrirako-ta, baiña ostientzian tresnaik... Bueno lerei, leria badakizu ze dan, eta lerak azpitan eruatzen dittu trineuan moduan zer batzuk, burdiñazko txapa sendo bat, hamen eta bestian be bai, bi zeretan; eta horrek apurtzen zienian berrixak ipiñi, eta horrek gauza horrek bai.
 -Orduan zaratia be...
 -Burdixei be ba... Burdixak arreglatzen asko egoten zien, burdixak apurtzen zien eta. Gero arotzerixa bat be bazeuan onduan, Jose Iñarra, Albitxubaso. Horrek zien hiru anai-arreba, hirukixak, eta izenik pentsatzeke jun zien sankristixara. Ez zeukela izenik, hiru batera zela ba, eta... Sakristania ikusi zittuanian, e: "Jesus, Jose ta Maria!" Eta horretxek ipiñi zotsen izenak. Bai, eta halaxe zan. Hori Joxe zan arotz hori, eta gero beste bi anai-arrebak Jesus eta Maria.
 -Errez topau zittuan orduan sakristaniak.
 -Horrek burdixak eitten zittuan, albuaren ermentarixak ipintzen zotsan zerak, burdiñan kontuak eitten zittuan batek eta bestiak egurrezkua.
 -Orduan ondo konplementatzen zien?
 -Hirurak gertuan zeren, bai.

4. Errementari eta ferratzaile lanen inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-216/004
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Errementariaren inguruko kontuak: lana kalean egiten zuen; erabiltzen zituen arropak... Baserritarrek abereak ferratzaera bertara eramaten zituzten, ferratokira. Idiak, zaldiak... ferratzen zituzten. Lanerako erabiltzen ziren behiak ere ferratzen ziren.

Transkripzioa

-Sutegixa eta iunkia ta, zarata haundixa egongo zan, ezta?
 - Bai, din, daun, dun! maillu haundixekin. Nere lagun batek, zereko... Luis Larrañagak dauzka aittajunan erremintta danak gordeta; taillar bat, almazentxo baten dauzka, hango tenazak eta. Akordatzen naiz ni, "horrek ikusitta najak ni lanian" esaten jat. Berak be bai puxkat, baiña (gu baiño) gaztetxuaua da-ta.
 -Zela juaten zan errementarixa jantzitta? Akordatzen za?
 -Urdin, beti.
 -Amantal haundiren bat edo?
 -Prakak eta alkondaria harek beti. Neguan jertsen bat edo, txaketia,

txaketa azulak eta be bai. Orduan lanian maonezkuak jazten zien.
-Eta perratzaillia inguruko basarrixetan...
-Ekarri eitten zeбен, ganaua ekarri eitten zotsen horrek perratzeko, bai.
Hor perratzen zittuan, bertara ekarritta. Gero laguntzen zotsan ermentarixai. Ondo, ondo.
Emaztea: Gero hau Uriarte Elusura-eta bera joaten zan.
-Bai, haura be mobiduko zan. Haura be jungo zan.
Emaztea: Beheratxua zeuan beste bat, e.
-Hementxe, kalian bertan.
Emaztea: gu juten giñan ikustera zela..., hementxe, berta-bertan, herri erdi-erdixan.
-Umiendako politta izango zan, ez?
-Bai ba, hoixe. Ganaua, hemendik sartzen zotsen korse bat, faja bat, eta hemendik beste bat, eta jaso eitten zeбен gora. Eta hankak gero lotu eta hola aurrian aurrekuak eta atzian atzekuak, eta gero hola ipintzen zeбан hankia, eta gero hamen perrak ipini; eta gero azkazkalak edo horrek, "las uñas", horrek gastau zer batekin eta berri-berri eindra bialtzen zittuen. Klabau hortxe zeretan, ta-ta-ta-ta! Josi danak eitten zittuen. Gehixenetan zer izaeten zien, idixak edo?
-Bai, irixak asko orduan eta behixak gutxi. Behixak lan eitten zeбен behixak bakarrik, bestiak ez zittuen perratzen. Eta zaldixa asko, zaldixak.
-Astuak?
-Astuakin enaiz akordatzen. Baleike, baiña enaiz akordatzen. Baiña zaldixata asko.
Karruakin zebizten zaldixak-eta, kamiñuan zebiztenak-eta, horrek asko gastatzen zittuen, eta horrek bai. Eta irixak-eta, behixak be bazeuzken batzuk; irira aillegatzen ez zienak ba lanerako behixak. Behixak esnia-ta emun eta gero gaiñera lana eraifñ etxian. Horrek be bai.

5. Uztargilea San Lorentzo auzoan

- **Erref:** BER-216/005
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:11:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoan uztargile bat ere bazegoen; Juan Cruz Arruti. Haren lanaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

Eta gero puxkat goratxua auzuan bertan zeuan uztargiña be bai. Uztarrixak eitten zittuan eta zan Arruti. Izena...
-Juan Kruz?
-Juan Kruz. Bazekizun, e?
-Besteren batek kontauta. Arruti esan dozunian.
-Semia Felix.
-Eta honek artistak zien.
-Bai. Ta-ta-ta! Harekin be bai, hari be makiña bat denpora egoten giñan begira. Bueno!
-Eurak joaten zian normalian baserrixetara, ez?
-Bai, hori bai. Hartzen zeбан bixkarrian zera, aparatua, erreminttak eta,

bara bat-eta, neurtzekua eta basarriz-basari.
-Egun beteko lana. Goizian joan askotan eta...
-Bai. Eztakit zenbat tardatzen zeban, baiña harek handik akabau arte ez zeban urtengo, ezto uste. Lo ein bihar bazeban, lo be bertan eingo zeban igual. Pentsau, e, eztakitt.

6. Zubieta kaleko jantzetxea; Santa Engrazia ermita

- **Erref:** BER-216/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:13:53. **Bukatu:** 00:15:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Baserrietatik mezara joateko, Zubieta kalean zegoen jantzetxean aldatzen zituzten arropak baserritarrek. Basalgon eta inguruko baserrietan hildakoren bat zegoenean, oinez ekartzen zuten gorpua kalera eta Santa Engrazia ermitaren kanpoaldean aitagure bat errezatzen zen. Barrutiko errota eta okindegia. Ondra-jana.</p>

Transkripzioa

-Horra joaten zien entiarrietan-eta.
-Zubittan zeuan hori, jantzetxia esaten jako. Eta han gure auzuan dago ermita bat, Santa Engrazia. Pare-parian Barrutin, Baarrutiko errota eta panaderixia zan eta handik Santa Engrazia parian petril gaiñian lagatzen zeben kajia deskansua eitteko. Beti hantxe. Eta errezau be aittaguren bat eitten zan. Goittik, Basalgotik eta etortzen zien, hiru tanda, hiru relebo-ta eindda, e. Lokatzetan belaunetaraiño neguan-eta. Haura zan haura.
-Eta Zubittan jantzetxia?
-Zubittan jantzetxia. Hor erropak aldatu, botak-eta kendu, eta zapatakin-eta ia elizarako itxuratu. Eta gero han bueltan han eitten zeben beti zeoze. Goizetik izeten zan entierria eta bazkaldu edo, ahal dan moduan ipiñiko zeben eztakit zer, konejua edo bildotxa edo dana dala, zeozer, betekada bat behintzet, ardao mordo bat edan eta atzera basarrira.
-Ondra-jana edo zer izeten zan hori?
-Ondra-jana, bai.

7. Santa Engraziako ermita

- **Erref:** BER-216/009
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:15:09. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Santa Engraziako ermitan ez zen mezarik ematen eta bertako egunean ere ez zen ezer berezirik egiten. Sineskera zaharra, garatxoak kentzen zituela. Jende asko joaten zen bertara garatxoa sendatuko zitzaizaien ustearekin.</p>

Transkripzioa

Ermittia esan dozu, Santa Engracia. Mezarik-eta eitten zan?

-Ez, ez, holako zer bat zan, santutxua zan.

-Bertako jai egunian edo?

-Ez, ez. Ez zeukan, hori ez zan zelebratzen. Zaukan..., jentiak botatzen zeban dirua eta kredua errezau ta, garitxuendako, garitxuak kentzen ziela. Han erriela bota, eta eztakit zenbat errezau, hiru aittaguria errezau eta garitxuak zera eitteko, garitxuak desaparezitzeko.

-Zeri esaten dotsazu garitxuak?

Emaztea: "Verruga".

-Orduan ohitturia edo siniskeria hori zan?

-Bai, holaxe zan...

Emaztea: "Supersticiones".

-Erriala bota, errezau eta trote. Zaukan halako zer bat, zepillua barruan, eta han eskua sartzeko lekua zeuan eta zepilluandako zera ta. Eta santia, Santa Engrazia, oiñ hori Santamaiñan dao, nubaitten, eztakitt nun baiña Santamaiñan dao, ganbaran ala nun. Santa Engracia.

8. Bergaran ehungintzak izan duen garrantzia

- **Erref:** BER-216/010
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:16:18. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Auzoaren inguruko azalpenak. "Oregineko tintorerixia" (tindategia) bertan zegoen. Bergaran ehungintzak tradizio handia izan du eta auzoan egon diren lantegien izenak aipatzen ditu. Igeltsu-zulo batzuk ere bazeuden; hauen inguruko azalpenak. Igeltsola etxea.

Transkripzioa

-Auzua asko aldatu da, ez?

-Bueno! Fabrika mordua dare eta, almatzen eta.

-Esan dozu tintorerixia edo...

-Bai, ni jaio nintzan lekuan, ni jaio nintzala tintorerixia han zeuan. "Oregi y compañía".

-Hemen Bergaran gaiñera textil asko egon dia.

-Bueno!, hamabi edo ... Han bertan be auzuan Oregi y compañía, Bergara textil, Vicente Aranzabal, Textil Muguerza. Horrek zien han auzuan zerenak. Danak auzokuak. Gero auzo haretan zeren beste bi igeltsu be bai. "Minas de yeso", igeltsu-zuluak. Han behian eztakit zenbat metruan junda igeltsua etaratzen zeben, kanteria behian.

-Eta nun hori?

-Eta gero erre eitten zeben hori, eta igeltsua ba zera eitteko, "yeso".

-Baiña hori auzuan bertan, baiña nun?

-Bai bai apartetxua.

Emaztea: Kanpo-fubola dagon tokixan.

-Kanpo-fubola eta Hondartzara bidian. Kanpo-fubola azpittik zulatuta zeuan.

-Eta ze zien, bi zulo esaten dozu?

-Bai, juten zien horrek eskillara moduko batzuketan bajatzen zien behera eta gero galeriak zeuzken eta han pikatxoiakin eta dinamitia eta etaratzen zeuben, harrixa, "yeso", eta haura erre eta gero harekin eitten zeuben igeltsua.

-Eta erre ze eitten zan barruan ala kanpuan?

-Kanpuan. Kanpora etara, sua eitten zeuben eta han gaiñian eukitzen zeuben sua eindda denpora bat eta haura erre ezkerera zera eitten zan, haustu, eta zihero ezpazan hausten be, makinetan pasatzen zeuben eta gero zakutan bete eta saldu igeltseruei tta. Bergaan zeren hiru igeltsu. Beste bat hamentxe Elusura bidian. Oin be izena horrek Igeltsola edo dauka; ba etxiak izena, bai.

-Orduan prozesua ze zan karobixan moduan karia etartzeko...

-Sistema bardiña. Bata zan Elgarresta, Emeterio Elgarresta, eta bestia Inazio Goenaga. Igeltsuak. Eta beste hau zan Atorrasagasti, baiña izena... Matias zan azkenengua, Matias. Baiña basarrikua zela zan... Matias. Atorrasagasti. Hiru egon zien. Eta horrek bi Emeterio Elgarresta eta Ignacio Goenaga, horrek jabiak.

-Orduan gaiñera lan asko eukiko zeuben, ez?

-Bai, eren kamioia-ta zeuken repartuak eta eitteko, kamioian joaten zien horrek Eibarrera-ta, Mondrauera-ta, bai. Lan asko eitten zeuben, eta eukiko zeuben, bost edo sei langille be eukiko zittuen.

9. Auzoko eskola

- **Erref:** BER-216/011
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Auzoko eskola, ume txikiendako bakarrik. Maistrak euskaraz hitz egiten zien umeei.

Transkripzioa

-Eta bertan auzuan eskolarik bazeukazuen?

-Bai. Manuela maistraria, baiña txikixak eskolan, oso txikixak. Parbularixo moduan, baiña hor hasi bi urtetik eta zortzi arte edo. Holakon bat. Zazpi arte edo.

-Maistraria zer zan, Bertakua, Bergakua?

-Bera? Nik hor ezautu neban beti, baiña ez dakit Bergakua izengo zan haura, e. Bai, euskeria hamengua eitten zeban, e.

-Orduan klasiak euskeraz eitten zenduan?

-Bai, bai. Aittaguria-ta errezu danak euskeraz. Guk erderaz ikutu bez. Halako makilla haundi bat eukitzen zeban, hemendik ixa ateraiñokua ta, bera ez zan mobitzen, ia edadian aurrera-ta, dunba! Joten zittuan buruan. Berriketan zegonai-tta, tanga!

-Gogorra zan orduan.

-Baiña haura zan, hoixe, guarderia zan haura. Etxian ez eukitzeko umiak ba hantxe. Ta kantuan, aittaguria errezau: "Aittaguria zeruetan..." Holaxe, eta han barruan euki ezkeru ba zeoze. Eta gero haundixauak-eta ba kuadernuakin letrak ein puxkat ... Beran ondora jun kuadernuakin eta ikasi, eta bittartian juerga danak.

-Orduan ze izeten zan, gela bakar bat eta ume guztiak han.

-Danak hantxe...

-Edade diferentetakuak eta...

-Parte haretan haundixak, eta hemen txikixak eta harutzauan neskak eta dana hola, bai.

-Neskak eta mutillak puxkat aparte egoten ziñazien edo?

-Bai. Barruan baiña grupo diferentia eindda. Makilla haundi bat, basarritarrak ekartzen zotsan, apurtzen jakonian basarritar batek batek ekartzen zotsan.

-Apurtu eitten jakon?

-Bai. Luzia, e, hamendik haraiñokua. Plan!, buruan, puxkat rebelde samarrei-tta. Manuela..., badaukat, horren izenak eta apeliuak badauzkat.

10. Maristak Bergaran

- **Erref:** BER-216/013
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:24:24. **Bukatu:** 00:27:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Jaunartzearen inguruko kontuak. Lehenengo jaunartzea Espoloian egin zuen; maristekin. Ondoren Santa Marinako parrokian egin zuten berriz. Maristen inguruko azalpenak. Ospitale Militarra.</p>

Transkripzioa

- Ni Espoloian akordatzen naiz, ez dakit zenbat urtekin jun nintzan Espoloira, han zerak zeren erlijioso batzuk, baiña zazpi urtekin komuniua ein neban hantxe.

- Orduan ze izaten zian, bi komunixo, txikixa eta haundixa?

- Bai, bi. Txikixa ta haundixa. Han ein neban nik komuniua zazpi urtekin. Orduan gerria urtenda zeuan?

- Bai, nik bost urte neuzkan gerria urten zanian; hogeta hamaikan jaio, bost urtekin etorri zan gerria eta hogeta hemezortzixan uste dot ein nebala komuniua, bai, zazpi urtekin, Espoloian. Eta gero parrokixan. Lelengo han profesoriekin edo harek zien Maristak. Maristak ez, Marianistas. Oin hor dago palazio bat Ertzaiña egon zana, hantxe. Han zaren harek; eta traje beltzakin ibiltzen zien, eren abitua, sotanaik-eta ez zeuken. Relijiosuak bai baiña mezia-ta ez zeben emoten. Bakarrik zien eskolako zerak, ez dakit nundik etorri zien, kanpotik gerra denporan.

- Eta hor egin zenduan komunixua.

- Emaztea: Eta noiz egon zien ba horrek? Hor egon zan ospital militarra be.

- Bai, gerra denporan, frentia hemen egon zanian. Gero eskolia.

- Emaztea: Gero ospital militarra.

- Bai, bai, oinndiok be beheko sotanuan anbulantziak eta danak zeren.

- Emaztea: Marianistak be rekisauta euki zeben ala? Rekisau egin zeben

marianistak etxe hori, ala?

- Ez, hori emun ein zotsen, aiuntamentuak emon hori, rekisauta, klaro, eskolak emoteko.

- Emaztea: Ospittala egon zan rekisauta.

- Lelengo egon zan ospittala, ospital militarra, eta gu han eskolan gebizela han bodegan bazeuan bi ambulanzia, aberixautako ambulanziak hantxe baztartuta, eta han ibiltzen giñan gu. Lelengo komuniua han eta gero Santamaiñan tokatzen zana.

- Zeuei tokatzen jatzuen Santamaiñako parroikia?

- Bai.

- Han komunixo haundixa?

- Ez, txikixa han be, berriz repetidu ein giñuan Santamaiñan. Guk lelengua hartuta zeukun han, baiña Santamaiñan parrokiakuak, e, zu!, hari ezin jatzun esan "guk eindda dauku, e", eta holaxe; han zerian, Espaloian danekuak, parroikia bixetakuak. Baitta kanpokuak be; kanpoko jentia be bazeuan. Internaua be bazeuan-eta.

11. Erlijioa errepublika garaian

- **Erref:** BER-216/014
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:27:08. **Bukatu:** 00:29:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Erlijioa errepublika garaian.

Transkripzioa

-Anekdotak bat: ni mutikua ta elizara kapillara, eta neu jarri han eta, nik enekixen erderaz errezatzen eta, "honek hemengo jangoiko honek ba ete daki euskeraz, entenditzen ete dau euskeraz?" Nik euskeraz bakarrik errezatzen. Hori akordatzen jata.

-Zure kezka...

-Bai, kezka neretako. Nik erderaz ezin errezau, enekixen eta. Profesoriak be ez zekixen iñok erderaz (euskeraz esan nahi du) Eta pentsatzen neban hango jangoikuak aber ba ete zekixen euskeraz (...) Neure dudedekin, kezkatuta zihero.

-Eta esaten dozu sotana moduko bat eruaten zebela, baltza edo.

-Trajia, korbatia eta traje beltza, alkondara zurixa eta. Marianistas.

12. Maristak Bergaran

- **Erref:** BER-216/015
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:29:37. **Bukatu:** 00:30:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Maristak Bergaran.

Transkripzioa

-Marianistak esan dozu internaua be bazekela?

-Bai. Uste dot eguna bakarrik pasatzen zebela, lo ez zebeu eitten han, e. Emaztea: Orduan internaua ezta hori.

-Ez, "media pensión". Kanpotarrak be bezeren. Badaukat nik orduko erretrato bat, egundoko kuadrillia.

-Internaua eta. Famia zeken eskola onak emoten zittuela edo?

-Ez, famaik-eta eztoz holakoik entzun. Baiña neure ustez onak zien.

13. Dominikoak Bergaran

- **Erref:** BER-216/020
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Dominikoek ere barnetegia (internatua) zuten. Bertan ematen ziren ikasketak.

14. Ehun lantegiak Bergaran

- **Erref:** BER-216/024
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:45:24. **Bukatu:** 00:49:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Oregireneko lantegia. Bertan egiten zen lanaren azalpena. Haria eta ehuna erosi, tindatu eta gerora saldu egiten zen. Ehun lantegiak Bergaran. Algodonera.

15. Oregireneko ehun lantegia

- **Erref:** BER-216/025
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:49:17. **Bukatu:** 00:51:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Oregireneko lantegia. Sail desberdinak. Lantegiaren hastapenak eta ibilbidea. Hasieran sozio gehiagok parte hartzen zuten lantegian, gerora Oregi anaiak geratu ziren lantegiaren jabetzarekin.

16. Oregireneko ehun lantegiaren hastapenak

- **Erref:** BER-216/026
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:51:39. **Bukatu:** 00:53:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Oregi ehun lantegiaren hastapenak. Sozio desberdinen inguruko zenbait datu. Espainia mailan oso ezagunak ziren sozioetako batzuk (komertzial bezala ibiltzen ziren).

17. Konpetentzia handia ehun lantegi desberdinen artean

- **Erref:** BER-216/027
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:53:32. **Bukatu:** 00:54:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Konpetentzia handia bertan herrian eta baita kanpoan ere.

18. Oregitarrak

- **Erref:** BER-216/028
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:54:48. **Bukatu:** 00:56:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Oregi nolakoa zen. Bi anaiak fenomeno batzuk.

19. Ehundegiaren inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-216/029
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:56:11. **Bukatu:** 00:56:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Ehundegiaren inguruko kontuak. Hasieran tela sendoak egiten ziren; gerora fintzen joan zen arren. Koloreak. "Azul de Bergara".

20. Ehun lantegiak Bergaran

- **Erref:** BER-216/031
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:00:07. **Bukatu:** 01:02:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Ehun lantegietako buruak garai batean "jauntxoak" izan ziren herrian. Gerora, lanaren eta negozioen beherakada etorri zen. Itxi diren ehun lantegiak; Tavex-ak jarraitzen du. Konpetentzia nondik datorren.

21. Lan-baldintzak

- **Erref:** BER-216/033
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:03:53. **Bukatu:** 01:06:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lan-baldintzak noiz hasi ziren hobetzen. Hasieran, larunbatetan ere lanera joan behar izaten ziren. Gaztetako pentsamoldea.

22. Emakumeak lan-munduan

- **Erref:** BER-216/034
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:06:03. **Bukatu:** 01:08:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

<p>Emakumeak betidanik lan egin izan du ehun lantegietan. Orduko kontuak. Zein sailetan egoten ziren emakume gehiago.</p>

23. Ehuna egiteko prozesua

- **Erref:** BER-216/039
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:12:25. **Bukatu:** 01:15:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Ehun lantegia. Prozesuaren atal desberdinen azalpena. Produkzioan egindako hobekuntzak.

24. 12 urtetatik txanponen bilduma egiten

- **Erref:** BER-309/001
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:44

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamenduko tabakoa hartzen zuen, tranpa eginda, 17 urterekin, lagun batekin txanponengatik trukatzeko. Txanponen bilduma egiten du 12 urte zituenetik; osaba-izebek Argentinatik bidalitako txanponekin hasi zen.

25. Errepublikako eta gerra sasoiko dirua

- **Erref:** BER-309/003
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:

Zein txanpon gorde zituen azaltzen du. Gerra denborako dirua: eskualde bakoitzena diferentea; kartoizko dirua. Errepublikako dirua.

26. Gerraostea: errazionamendua eta kupoa

- **Erref:** BER-309/005
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:05:46. **Bukatu:** 00:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamenduko tabakoa gezurretako paperekin hartu, eta Belgikako txanponengatik trukatzeko. Ogi gogor borobila. Goserik ez zuten pasatu. Etxe ondoan hirin lantegia zegoen. Kupoak bertan entregatzen zituzten baserritarrek. Nagusiak kanpokoak ziren. Langileak Bergarakoak; mutikotan, haiei jatekoa eramatera joaten zen.

27. Aita, ehun lantegiko arduraduna

- **Erref:** BER-309/006
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:09:49. **Bukatu:** 00:11:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Lantegiko arduraduna zen aita, eta bertan bizi ziren. Errotak eta okindegiak. Kontrabandoko ogi zuria. Bi anai ziren.

28. Filatelia elkartea

- **Erref:** BER-309/008
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Filateliak indar handia izan zuen Bergaran; erakusketa asko antolatzen zituzten. Telebistarik ez zegoenez... Gazterik ez dute taldean. Elkartzen jarraitzen dute. Gaur egungo kontuak: euro berriak.

29. Lehen bildumazale gehiago orain baino

- **Erref:** BER-309/010
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Egiten diren bildumak: poltsikoko egutegiak, puro bitolak, pospolo kaxak, txanpain tapoiak... lehen bilduma gehiago egiten ziren orain baino. Denbora gehiago zuten, baina ez ziren aspertzen. Asko ibiltzen ziren kalean. Txikiteoa egiten dute orain ere.</p>

30. Txikiteoaren ohitura I

- **Erref:** BER-309/011
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:22:42. **Bukatu:** 00:24:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Txikiteoa nola aldatu den. Lehen jende gehiagok egiten zuen. Orain zuritua edaten da gehiago. Iluntzeko txikiteoa utzita dauka, baina goiz eta arratsalde egiten dute batzuek. Orain goizean egiten du. Garestia ere bada. Txandaka ordaintzeko ohitura.

31. Txikiteoaren ohitura II

- **Erref:** BER-309/013
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:26:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Kaja jartzeko ohiturarik ez zuten lehen, baina sistema ona iruditzen zaio,

bestela batzuek gehiago ordaintzen dutelako besteek baino. Egunean zazpi bat txikito, iluntzean; batzuek hogei ere bai. Oraingoak baino txikiagoak eta merkeagoak ziren. Oraingoek baino kalte gutxiago egiten ote zuten.

32. Ardoaren partiketa eta alhondiga

- **Erref:** BER-309/014
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Ardoaren partiketa fajeroak egiten zuen tabernetan, alhondigatik pasatuta. Tranpak ere egiten zituzten. Sagardoak ere komisioa zeukan.

33. Txikiteoaren ohitura III: ardoaren prezioa

- **Erref:** BER-309/016
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:31:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Oñatin, txikitoa pezetara igo zutenean, greba egin zuten. Bergaran ere bai. Bi tabernetan ez zuten igo, eta denak hara joaten ziren. Txikitero beteranoentzat zentimoak inportanteak ziren. Intxorta tabernak bezero asko lortu zituen hala, prezioa igo gabe.

34. Txikiteoko ohitura IV: kantuan

- **Erref:** BER-309/017
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:31:26. **Bukatu:** 00:33:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Kanturako zaletasuna zegoen txikiteoan zebiltzala; Julio Larrañagak-eta oso ondo kantatzen zuten. Asteburuetan kantatzen zuten, eguneroko txikiteoa ez zuten denek egiten. Lan egunak zenbat ordukoak izaten ziren.

35. Emaztearen kontuak: "prakamotxena"

- **Erref:** BER-309/019
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:33:45. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Emaztea izango zuena nola ezagutu zuen ez du gogoratzen. "Prakamotxena" okindegikoa zen; izena nondik ote datorren, Algodonerako greba batekin lotuta ote zegoen, "barcanos"-etik. Emazteak erloju denda zuen.

36. Santa Marina eta San Pedro parrokiak

- **Erref:** BER-309/021
- **Iraupena:** 0:06:01. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:43:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

33 urtean izan zen junta parrokiakoa. Santa Marina parrokia eta San Pedrokoa, herritarrak bitan banatuta daude. Oxinondo eta Ariznoa herriak ziren lehen, eta bakoitzak bere eliza zuen. 1870 arte, erregistro datu denak elizan gordetzen ziren. Sasoi batean ez zen derrigorrezkoa erregistratzea. XVI. mendeko kontuak. Antzinako errolda bati buruzko kontuak.

37. "Irugixonekoak"

- **Erref:** BER-309/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:43:41. **Bukatu:** 00:45:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere familiaren genealogia. Ugabide baserrian bizi ziren Laskuraindarrak. Antzuolatik etorri ziren Bergarara. Irugixora joan zen aitona, gaztetan, bizitzera, baina santa Anan bizitakoa zen. "Irugixonekoak" esaten diete.

38. Familiaren jatorria: Santa Ana

- **Erref:** BER-309/024
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:45:43. **Bukatu:** 00:47:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Behoko kondea Aramaiotik etorria zen: lehenengo Dominena baserrira joan zen, gero Zelai baserrira eta gero Santa Anara. Laugarren kondea, Ignacio Murua Balzola, Santa Ana jauregian hil zen. Conde del Valle etorri aurretik bere familia han bizi zen, errotan.

39. Santa Ana jauregiko kontuak

- **Erref:** BER-309/027
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:49:08. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Kondea jaio zenean, aitajauna umea zen; elkarrekin jolastuko zuten seguruenez. Ermita baino goraxeago zegoen errota; pilotalekua dago orain han. Errotalde. Goiko kondea (Gaitan de Ayala) eta behekoa senideak ziren.

40. Beheko kondea

- **Erref:** BER-309/031
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:55:06. **Bukatu:** 00:55:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Kondearen anekdota. Seminaria joaten zen mezetara, eta hura ikusita 'Txantxiku' deitzen zioten batek esan zuena.

41. Junta parrokiako lanak I

- **Erref:** BER-309/034
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:57:35. **Bukatu:** 00:59:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Junta parrokiako lanak. Familia parrokiak. Bi batzorde zeuden, txikia eta handia. Elizara loreak eramatea debekatu zuten, gastu handia zelako familiarentzat. Entierroa debalde zen kuota ordainduta. Gaztea zela, kandela eta manta jartzen zen hilberrientzat.

42. Junta parrokiako lanak II

- **Erref:** BER-309/036
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:01:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Familia parrokiaren kontuak. Kontrakoak ere izan zituzten. Hilkutxak Galiziatik ekartzen hasi ziren.

43. Hildakoa bizkar gainean, Goimenditik

- **Erref:** BER-309/037
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 01:01:56. **Bukatu:** 01:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Orduko hiletak. Hildakoa bizkarrez eramaten zuten elizara. Basalgo auzoko Goimenditik bide luzea zegoen. Lokatzez beteta iristen ziren. Hango familiak aipatzen ditu. 90 biztanle zeuden Goimendin XX. mende hasieran. Betaurrekodun emakume bat zaldi gainean joaten zen Goimenditik Bergarara. Intxuzabaleko Tomas ere erosketak egitera joaten zen, oinez.

44. XVI. mendetik arbasoak bergararrak

- **Erref:** BER-385/002
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:19. **Bukatu:** 00:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Bergarakoa zuen eta ama, Antzuolakoa. XVI. mendetik ditu Bergaran arbasoak. Amaren familia, jatorriz Gabirikoa zen. San Lorentzoko auzoko eskolan ikasi zuen haur askorekin batera. Txikienak lurtean esertzen ziren.

45. Baserritarrei asko lagundu die I

- **Erref:** BER-385/006
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzoko arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Lorenzok udaletxean lan egin du, errolda kontuetan. Baserritarrei asko lagundu izan die, lursailei inguruko informazioa asko eskatzen zutelako. Behin, nagusia joan zitzaion kexuka, antza, baserritar denek berarekin egon nahi zutelako.

46. Baserritarrei udaletxetik laguntzen

- **Erref:** BER-385/008

- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:06:49. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Baserriko jendeari laguntzeko grina izan du beti. Baserrikoei tratu txarragoak eman zitzaizkien eta Lorenzok lagundu egiten zien.

47. Bergarako udaletxeko langilea

- **Erref:** BER-385/010
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Oregi y Cía ehungintzako lantegian lan egin zuen 30 urtez eta ondoren, Bergarako udaletxean hasi zen lanean. Josu Oregi.

48. Trenak etorkinak ekarri zituen Bergarara

- **Erref:** BER-385/012
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Begarara trenea heldu zenean, etorkin ugari heldu ziren Bergarara. San Antonio auzoan etorkin asko bizi ziren eta "auzo txinatarra" deitzen zioten.

49. Baserritarrekin harreman oso estua

- **Erref:** BER-385/014
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Udaletxean zegoela, emakume talde baten eskaerak gogoratzen ditu, astoak lotzeko espazioa gutxitu zitzaielako. Angiozarko neska baten kasua ere gogora ekartzen du. Behin, Angiozarrera joan zen udaletxeko mezu bat bidaltzera eta han ere entzun behar izan zituen Lorenzok.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com